

Aldundiak Liburutegian dituen inkunableen katalogo eguneratua argitaratu du

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak Foru Liburutegian gordeta dauden 43 inkunableen katalogo eguneratu bat argitaratu du, herritarrek ale horiek hurbiletik ezagutzeko aukera izan dezaten. Inprenta XV. mendearen erdi aldera agertu zenetik 1500. urtera arte tipo mugigarriekin inprimatutako liburuak osatutako altxor bat da. Liburu horiek balio ikaragarria duen legatua dira, pentsamenduaren eta ezagutzaren iturri izan baitziren; gure historia dira, eta benetako iraultza kulturala sortu zuen aldaketa baten emaitza.

Bizkaiko Foru Liburutegiak funts bat dauka 43 inkunablerekin. Liburu horien artean, Brocar maisuarena nabarmentzen da: nafarra eta Liburutegiak daukan euskal inkunable bakarra. Bildumako zaharrenak XV. mendeko 70eko hamarkadakoak dira, eta zuzendu eta handitu egin da aurreko katalogoa, erosi berri diren lau alerekin: Estrabonen Geografia, Senekaren Opera, Alfontso X.a Jakintsuaren Taula Astronomikoak eta Forestiren Kronika. Azken lan honek grabatu ugari ditu. Katalogoa beste ikuspegi batekin egin da eta asko zaindu da haren diseinua.

Normalean, erlijio-liburuak dira, baina literarioak ere badaude. Hizkuntz erabiliena latina da, eta, gero, italiera, alemana, frantsesa, ingelesa eta gaztelania. Ohiko koloreak honako hauek dira: tinta, gris iluna; papera, beixa, horia edo grisaxka; eta letra maiuskulak, izenburuak, alboko oharrak..., gorriak edo urdinak. Letra gotikoa erabiltzen dute, baina, astiro-astiro, Italiako humanistek tipografia borobilagoa sartu zuten. Xehetasun hauek Bizkaiko Foru Liburutegiak gordeta dituen 43 inkunableetan ikusi ahal dira.